**"KARRANTZAKO UDAL ARAU SUBSIDIARIOETAKO ALDAKETA PUNTUALA. EKIPAMENDU SISTEMA OROKORRA – «KARPIN» PARKE TEMATIKOA" IZENEKO ALDAKETAREN INGURUMEN ERAGINA EBALUATZEKO ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUA EBAZTEKO PROPOSAMENA, PROZEDURA URRIAREN 16ko 211/2012 DEKRETURA EGOKITZEKO, HORREN BITARTEZ PLANEN ETA PROGRAMEN INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIO ESTRATEGIKOA EGITEKO PROZEDURA ARAUTU BAITA.**

9/2006 Legearen 9. artikuluan eta 211/2012 Dekretuaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen iraunkortasunari buruzko txostenaren hedadura eta xehetasun-maila ingurumen-organoak zehaztuko ditu, ukitutako administrazio publikoak eta herritar interesdunak identifikatu eta haiei kontsulta egin ondoren, erreferentziazko dokumentu bat bidaliz. Erreferentziazko dokumentu horretan, ingurumen irizpide estrategikoak eta ingurumen helburuen adierazleak eta kasu bakoitzean aplika daitezkeen iraunkortasun printzipioak jasoko dira. Era berean, informatzeko eta kontsultatzeko moduak zehaztu beharko ditu ingurumen organoak.

Horren ondorioz, 3/1998 Legearen 44. artikuluak emandako eskuduntzak erabiliz (3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babestekoa), eta 211/2012 Dekretuaren arabera (211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko ebaluazio estrategikoaren prozedura araupetzen duena), Ingurumen Foru Sailari dagokio erreferentziazko dokumentua egitea, ingurumen-xedeetarako soilik eta "Karrantzako Udal Arau Subsidiarioetako aldaketa puntuala. Ekipamendu sistema orokorra – «Karpin» parke tematikoa"

**PROPUESTA DE RESOLUCIÓN DEL DOCUMENTO DE REFERENCIA COMPLEMENTARIO PARA LA EVALUACIÓN AMBIENTAL ESTRATÉGICA DE LA "MODIFICACIÓN PUNTUAL DE LAS NN.SS. MUNICIPALES DE KARRANTZA. SISTEMA GENERAL DE EQUIPAMIENTO PARQUE TEMÁTICO «EL KARPIN»", A EFECTOS DE SU ADAPTACIÓN PROCEDIMENTAL AL *DECRETO 211/2012, DE 16 DE OCTUBRE, POR EL QUE SE REGULA EL PROCEDIMIENTO DE EVALUACIÓN AMBIENTAL ESTRATEGICA DE PLANES Y PROGRAMAS*.**

En virtud de lo establecido en el artículo 9 de la *Ley 9/2006* y en el artículo 10 del *Decreto 211/2012*, el alcance, nivel de detalle y el grado de especificidad del Informe de Sostenibilidad Ambiental (ISA) se determinará por el Órgano Ambiental tras identificar y consultar a las Administraciones públicas afectadas y al público interesado, mediante la emisión de un Documento de Referencia que incluirá además los criterios ambientales estratégicos e indicadores de los objetivos ambientales y principios de sostenibilidad aplicables en cada caso. Asimismo, el Órgano Ambiental deberá definir las modalidades de información y consulta.

En consecuencia, corresponde al Departamento Foral de Medio Ambiente, en el ejercicio de las atribuciones conferidas por el artículo 44 de la *Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco*, y de acuerdo, asimismo, con el *Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas*, formular el Documento de Referencia, a los solos efectos ambientales y en relación a la "Modificación puntual de las NN.SS. municipales de Karrantza. Sistema General de Equipamiento

izeneko aldaketarekin lotuta.

2011ko azaroaren 15ean, Karrantza Haraneko Udalak goian aipatu den planeamenduaren ingurumen ebaluaziorako erreferentziazko dokumentua emateko eskatu zuen.

9/2006 Legearen 9 artikuluan (*9/2006 Legea, apirilaren 28koa, plan eta programa jakin batzuek ingurumenari eragindako ondorioen ebaluazioari buruzkoa*) eta 183/2003 Dekretuaren 6. artikuluan (*183/2003 Dekretua, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duena*) aurreikusitako izapidea, ukitutako administrazio publikoak eta herritar interesdunak identifikatu eta haiei kontsulta egitekoa, bete ondoren, “Karrantzako Udal Arau Subsidiarioetako aldaketa puntuala. Ekipamendu sistema orokorra – «Karpin» parke tematikoa” izeneko aldaketaren ingurumen ebaluaziorako erreferentziazko dokumentua egitea erabaki zen, 2012ko otsailaren 1eko 132 Foru Aginduaren bidez.

2012ko uztailaren 19an, Karrantza Haraneko Udalak goian aipatu den planeamenduaren ingurumen ebaluaziorako ingurumen eraginari buruzko aurretiazko txostena emateko eskatu zuen. Ezarritako prozedura betez, 2012ko irailaren 25eko 1304 Foru Aginduaren bidez, ingurumen eraginari buruzko aurretiazko txostena egin zen “Karrantzako Udal Arau Subsidiarioetako aldaketa puntuala. Ekipamendu sistema orokorra – «Karpin» parke tematikoa” izeneko aldaketari buruz.

2012ko azaroaren 20an indarrean jarri zen *211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko ebaluazio estrategikoaren prozedura araupetzen duena*, eta izapidetzen ari den espediente honi aplikatu behar zaio, nahiz eta espediente honek oraindik ez eduki

– Parque Temático «El Karpin»”.

Con fecha 15 de noviembre de 2011, el Ayuntamiento del Valle de Carranza solicitó la emisión del Documento de Referencia para la evaluación ambiental del planeamiento de referencia.

Tras llevar a cabo el trámite de identificación y consulta a las Administraciones públicas afectadas y al público interesado previsto en el artículo 9 de la *Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente* y en el Artículo 6 del *Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental*, se resolvió formular, mediante Orden Foral número 132 de 1 de febrero de 2012, el Documento de Referencia para la evaluación ambiental de la “Modificación puntual de las NN.SS. municipales de Karrantza. Sistema General de Equipamiento – Parque Temático «El Karpin»”.

Con fecha 19 de julio de 2012, el Ayuntamiento del Valle de Carranza solicitó la emisión del Informe Preliminar de Impacto Ambiental para la evaluación ambiental del planeamiento de referencia. Atendiendo al procedimiento previsto, se resolvió formular, mediante Orden Foral número 1304 de 25 de septiembre de 2012, el Informe Preliminar de Impacto Ambiental de la “Modificación puntual de las NN.SS. municipales de Karrantza. Sistema General de Equipamiento – Parque Temático «El Karpin»”.

Con fecha 20 de noviembre de 2012 entra en vigor el *Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas*, siendo de aplicación al presente expediente en tramitación, dado que éste aún no ha sido aprobado inicialmente.

hasierako onespenik.

Karrantza Haraneko Udalak "Karrantzako Udal Arau Subsidiarioetako aldaketa puntuala. Ekipamendu sistema orokorra – «Karpin» parke tematikoa" izeneko aldaketaren hasiera-agiria (*211/2012 Dekretuaren* V. eranskina) igorri zuen (Ingurumeneko Foru Sailaren erregistroko sarrera data: 2013ko abenduaren 11n), Aialur enpresak 2013ko abenduan egina. Igorpen horren xedea da dokumentazioaren edukia dekretu horren eskakizunei doitzea. Izan ere dekretu hori aplikagarria da espediente honetan, ez delako hasierako onespenik eman aipatutako araudia indarrean jarri aurretik.

El Ayuntamiento del Valle de Carranza, con fecha de entrada en el registro del Departamento Foral de Medio Ambiente de 11 de diciembre de 2013, remite el Documento de Inicio (Anexo V del *Decreto 211/2012*) de la"Modificación puntual de las NN.SS. municipales de Karrantza. Sistema General de Equipamiento – Parque Temático «El Karpin»", elaborado por la mercantil Aialur de fecha diciembre de 2013. Esta remisión tiene por objeto ajustar el contenido de la documentación a las exigencias de este Decreto, que resulta de aplicación a este expediente al no contar con aprobación inicial con anterioridad a la entrada en vigor de la mencionada normativa.

Txosten honek osatu egiten du 2012ko otsailaren 1eko 132 Foru Aginduaren bitartez emandako erreferentziazko dokumentua, eta, hala, bideratutako ingurumen eraginaren ebaluazio prozedurak *211/2012 Dekretu* berriaren 8., 9. eta 10. artikuluetako eskakizunak betetzen dituela ulertzen da, aldaketa puntual (aurrerantzean plana deituko diogu) honetarako.

Con la emisión del presente informe, que complementa el Documento de Referencia ya emitido mediante Orden Foral número 132 de 1 de febrero de 2012, se considera que el procedimiento de evaluación ambiental llevado a cabo cumple con los requerimientos de los artículos 8, 9 y 10 del nuevo *Decreto 211/2012* para esta Modificación Puntual (plan en adelante)

**<u>A.- Erreferentziazko dokumentua osatzen duten zehaztapenak</u>**

Sustatzaileak bidalitako dokumentazioa aztertu ondoren eta *211/2012 Dekretuak* erreferentziazko dokumentuaren edukiari buruz ezarritakoa kontuan hartuta, gogoeta hauek aintzat hartzen dira 2012ko otsailaren 1eko 132 Foru Aginduaren bidez emandako erreferentziazko dokumentua osatzeko. Atal honetako zehaztapenak kontuan eduki beharko dira ingurumen iraunkortasunari buruzko txostena (hemendik aurrera IIT) egiteko. Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluaziorako (IEBE) azterlana, ingurumen eraginari buruzko aurretiazko

**<u>A.- Determinaciones que complementan el Documento de Referencia</u>**

Analizada la documentación remitida por el promotor y considerando lo establecido en el *Decreto 211/2012* respecto al contenido del Documento de Referencia, se incluyen las siguientes consideraciones para complementar el Documento de Referencia emitido mediante Orden Foral número 132 de 1 de febrero de 2012. Las determinaciones de este apartado deberán considerarse en el Informe de Sostenibilidad Ambiental (ISA en adelante). El Estudio de ECIA aportado en la solicitud del IPIA podrá servir de base para la redacción del ISA

txostenaren (IEAT) eskaeran aurkeztutakoa, oinarritzat hartu ahal izango da IITa egiteko, *211/2012 Dekretuaren* II. eranskinean ezarritakoaren arabera.

conforme a lo que establece el Anexo II del *Decreto 211/2012*.

1ª) Espediente honi aplikatu beharreko ingurumen helburuak erreferentziazko dokumentuaren 3.2 atalean ezarritakoak dira. IEBE (IIT) azterlanak ez ditu zehazten erreferentziazko dokumentuan adierazitako helburuak osatzeko ingurumen helburu osagarriak. IITan helburu horiek garatu behar dira eta planeko proposamenetan nola islatuko diren adierazi behar da. Hirigintzako helburuak eta helburu funtzionalak bezala tratatu behar dira ingurumen helburu horiek.

1ª) Los objetivos ambientales aplicables al presente expediente son los establecidos en el apartado 3.2 del Documento de Referencia. El estudio de ECIA (ISA) no define objetivos ambientales complementarios a los señalados en el Documento de Referencia. El ISA deberá desarrollar estos objetivos y señalar su reflejo en las propuestas del plan. Estos objetivos ambientales deben ser tratados de la misma manera que los objetivos urbanísticos y funcionales.

2ª) Plana egitea beharrezkoa eta egokia dela justifikatu da V. eranskinean.

2ª) La justificación de la necesidad y oportunidad de la elaboración del plan se ha aportado en el Anexo V.

3ª) Erreferentziazko dokumentuaren 4. eta 5. ataletan zerrendatu ziren Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren ebaluazioan kontuan hartu beharreko funtsezko ingurumen alderdiak oraindik baliagarriak dira. 4. atalean, ingurumen balioen aldetik zer baliabide eta eremu diren garrantzitsuak zehazten da, IITan analisi zehatzago bat egitea inola ere eragotzi gabe.

3ª) Los aspectos fundamentales ambientales a considerar en la evaluación del PGOU que se enumeraron en los apartados 4 y 5 del Documento de Referencia siguen siendo válidos. En el apartado 4 se avanzan los recursos y espacios relevantes en cuanto a sus valores ambientales, sin perjuicio de que el ISA haga un análisis de mayor precisión.

4ª) Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluaziorako azterlana (prozedura honetan, IITa), ingurumen eraginari buruzko aurretiazko txostena emateko eskaerarekin batera aurkeztu den hori, bat etorri behar da *Plan eta programen ingurumen ebaluazio estrategikorako prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuaren* II. eranskinean definitutako edukiarekin. Horri dagokionez, gai hauei heldu behar zaiela adierazten da:

4ª) El Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental (ISA en el presente procedimiento) aportado con la solicitud de emisión del Informe Preliminar de Impacto Ambiental debe adecuarse al contenido definido en el Anexo II del *Decreto 211/2012 por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas*. A este respecto se señalan las siguientes cuestiones a abordar:

- ***Orokorra***. Baliozkoak dira 2012ko irailaren 25eko 1304 Foru Aginduan zehaztutako betekizun teknikoak. Foru Agindu horren bidez ingurumen eraginari buruzko aurretiazko txostena egin da

- ***General***. Son válidos los requerimientos técnicos especificados en la Orden Foral 1304 de 25 de septiembre de 2012 por la que se formula el Informe Preliminar de Impacto Ambiental de la

"Karrantzako Udal Arau Subsidiarioetako aldaketa puntuala. Ekipamendu sistema orokorra – «Karpin» parke tematikoa" izeneko aldaketari buruz.

- Beren beregi aintzat hartuko da IEATko 2. eta 3. puntuetan azaldutakoa.
- Kontuan hartu beharko dira espediente honetako kontsulten fasean jaso diren erantzun guztiak.
- Antolamendu-eremuko arrisku naturalen mapa erantsiko da, 8/2007 Legean[1] ezarritakoaren arabera.
- Kontuan hartuko da beste edozein ingurumen arazo, planerako garrantzia badu. Zehazki, kontuan hartuko dira ingurumen garrantzi bereziko edozein eremurekin zerikusia duten arazoak.

▪ *Aukeren azterketa. IITan garatu egin beharko da hautatutako aukeraren bideragarritasun ekonomikoaren gaineko txostena, V. eranskinean zirriborratutakoa, 211/2012 Dekretuaren II. eranskineko n) puntuan zehazten den bezala. Halaber, kontuan hartu beharko dira mugikortasun iraunkorra sustatzen duten aukerak (aldirietako aparkalekuak garraio publikoko sistemei lotutako eremu estrategikoetan…).*

▪ *Ukitutako eremuaren ingurumen azterketa.*

- Zarata. 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa, 2013ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean,

"Modificación puntual de las NN.SS. municipales de Karrantza. Sistema General de Equipamiento – Parque Temático «El Karpin»":

- Se atenderá específicamente a lo referido en los puntos 2. y 3 del IPIA.
- Se deberán considerar todas las respuestas recibidas en fase de consultas de este expediente.
- Se incluirá un mapa de riesgos naturales del ámbito de ordenación, según lo determinado en la Ley 8/20072.
- Se considerará cualquier otro problema ambiental existente que sea relevante para el plan, incluyendo en concreto los relacionados con cualquier zona de particular importancia ambiental.

▪ *Análisis de alternativas. El ISA deberá desarrollar el informe sobre la viabilidad económica de la alternativa elegida esbozado en el Anexo V, según se determina en el punto n) del Anexo II del Decreto 211/2012. Asimismo, deberá/n considerarse alternativa/s que favorezcan la movilidad sostenible (aparcamientos disuasorios en ámbitos estratégicos ligados a sistemas de transporte público,…).*

▪ *Análisis ambiental del ámbito afectado.*

- Ruido ambiental. El Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País

[1] 8/2007 Legea, maiatzaren 28koa, Lurzoruari buruzkoa, 15.2 artikulua.
[2] Ley 8/2007, de 28 de mayo, de suelo. Art. 15.2.

eta horrenbestez, plan honetan aplikatu behar da. Ingurumen iraunkortasunari buruzko txostenean zonakatze akustikoa egin beharko da (21. artikulua), kontuan hartuz, gutxienez, f motako eremu akustikoak (errepidea, aparkalekua). Kontuan hartuko dira kalitate akustikoaren arloko helburuak (31. artikulua), bai eta etorkizuneko hirigintza-garapenari dagokiona (36. artikulua) eta eraikuntza berriei aplikatu beharreko eskakizunak (43. artikulua) ere.

Halaber, arauz zehaztutako edukia izango duen azterlan akustikoa egin beharko da (37. artikulua), eta BI-4675 errepideko zortasun akustikoko eremuaren titularrari (Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Saila) igorri beharko zaio[3], planari hasierako onespena eman aurretik (30. artikulua).

- Hornidura eta saneamendua. IITan, Uraren Euskal Agentziak adierazi duenez, lehendik dauden hornidura eta saneamendu sareak eta horien zerbitzu maila deskribatu behar dira, horien egokitasuna edo eskakizun berriak justifikatu behar dira, eta El Callejo-Araztegia kolektorearen proiektuarekiko konexioa baloratu behar da. Konexio hori gauzatzen ez den bitartean, arazketa sistema autonomoa jarri ahal izango da parke tematiko osorako (isurketarako baimena, Uraren Euskal Agentziako Kantauri Mendebaldeko Arroen Bulegoan).

- *Zuzenketa eta babes neurriak. IITan*

Vasco ha entrado en vigor el 1 de enero del 2013 y, por tanto, es de aplicación al presente plan. El Informe de Sostenibilidad Ambiental deberá elaborar la zonificación acústica (art. 21) considerando al menos las áreas acústicas de tipo f (carretera, aparcamiento), considerar los objetivos de calidad acústica (art. 31), así como lo concerniente al futuro desarrollo urbanístico (art. 36) y las exigencias aplicables a nuevas edificaciones (art. 43).

Asimismo, deberá elaborarse un estudio acústico con el contenido especificado reglamentariamente (art. 37), que deberá ser remitido al titular de la zona de servidumbre acústica de la BI-4675[4] (Departamento de Obras Públicas y Transportes de la Diputación Foral de Bizkaia) de forma previa a la aprobación inicial del plan (art. 30).

- Abastecimiento y saneamiento. Tal como informa la Agencia Vasca del Agua, el ISA debe describir las redes de abastecimiento y saneamiento existentes y su nivel de servicio, justificar su idoneidad o nuevos requerimientos y valorar la conexión al proyecto de colector El Callejo-EDAR, que mientras no se materialice podrá considerarse un sistema de depuración autónomo para el conjunto del parque temático (autorización de vertido en la Oficina de las Cuencas Cantábricas Occidentales del URA).

- *Medidas correctoras y protectoras. El*

---

[3] Irailaren 18ko 4523/2013 Foru Agindua, ukitutako udalei entzuteko izapidea ebazten duena eta Bizkaiko foru errepideetako zortasun akustikoko eremua behin betiko onesten duena.

[4] *Orden Foral 4523/2013, de 18 de septiembre, por la que se resuelve el trámite de audiencia a los Ayuntamientos afectados y se aprueba definitivamente la Zona de Servidumbre Acústica de las carreteras forales de Bizkaia.*

*babes eta zuzenketa neurri orokorren sorta handia jaso da. Neurri horiek edozein proiektu egiteko balio dute, eta euretariko batzuei balorazio ekonomikoa egin zaie. Hala ere, planeamendu eskalako prebentzio neurriei dagokionez, neurriok honako hauekin osatu behar dira:*

- Erabilera sentikorren antolaketa halako moduan planifikatuko da non ahalik eta txikiena izango baita errepideak sortutako zarata.
- Urbanizazio jarduketak, bereziki aparkalekuan, lurraren topografiari ahalik eta ondoen egokitzeko moduan diseinatu beharko dira, ahalik eta lur mugimendu eta hondeaketa gutxien eginez.
- Eraikuntza eta eraispenetako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen duen 112/2012 Dekretuaren ondoriozko betekizunak aplikatuko dira.
- Lurzoruaren erabilera iraunkorraren arloko ingurumen helburuaren ondoriozkoak: aparkalekuaren proiektuan, lehentasunez diseinu bigunak erabiliko dira (geoehun iragazkorren gaineko zoladura porotsuak, infiltrazioa errazten dutenak, soropila edo lur egonkortua…).
- Lurzoruaren erabilera iraunkorraren arloko ingurumen helburuaren ondoriozkoak: drainatze sistema iraunkorrak diseinatzea (atxikitze-putzuak, zanga iragazleak, hezegune txikiak sortzea…). Euri ura erabiltzea,

*ISA incluye una extensa batería de medidas protectoras y correctoras de carácter genérico, válidas para la ejecución de cualquier proyecto, algunas de las cuales están valoradas económicamente. No obstante, con referencia a las medidas preventivas a escala de planeamiento, éstas se deberán completar con:*

- La disposición de usos sensibles se planificará de manera que se minimice la incidencia del ruido ambiental generado por la carretera.
- Las actuaciones de urbanización, específicamente en el área del aparcamiento, deberán diseñarse buscando la mejor adaptación a la topografía del terreno minimizando el movimiento de tierras y la excavación.
- Aplicación de los requerimientos emanados del Decreto 112/2012, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición.
- Las derivadas del objetivo ambiental de la utilización sostenible del suelo: en la proyección del aparcamiento se deberá priorizar la aplicación de diseños blandos (pavimentos porosos sobre geotextiles permeables, que favorecen la infiltración, césped o tierra estabilizada,…).
- Las derivadas del objetivo ambiental de la protección de las aguas: diseño de sistemas de drenaje sostenible (balsas de retención, zanjas filtrantes, generación de pequeños

bilketa-sistemak (terrazak, biltegiak, drainatze-urmaelak...) berdeguneekin, txorko jarraituekin eta abarrekoekin lotuz. Sarbideek ahalik eta azalerarik txikiena okupatzea. Horretarako, jarduketaren beharrizanetarako ereduzko sekzio egokia diseinatuko da bide berrietan.

humedales,…). Aprovechamiento del agua de lluvia mediante la conexión de los sistemas de recogida (terrazas, depósitos, estanques de drenaje…) con zonas verdes, alcorques continuos, etc. Minimización de la superficie ocupada por las vías de acceso mediante el diseño de una sección tipo en nuevos viales acorde a las necesidades de la actuación.

- Energia-eraginkortasunaren arloko ingurumen helburuaren ondoriozkoak: instalazioen kanpoaldeko eta aparkalekuko argien diseinuan eta instalazioan argiztatu nahi diren eremuetarako berariazko argiztapena ezartzea, sodiozko lanparak eta LED argiak erabiltzea, energia berriztagarriak -fotovoltaikoa, eolikoa- erabiltzea argietarako, kanpoaldeko argiztapen apaingarria eta gaueko argiztapena gutxitzea, kontrol automatikoko tresnak jartzea (eguzki-detekzioa...).

- Las derivadas del objetivo ambiental de la optimización en la eficiencia energética: aplicación en el diseño e instalación del alumbrado exterior de instalaciones y aparcamiento de iluminación específica de superficies deseadas, utilización de lámparas de sodio-LEDs, uso de energías renovables –fotovoltaica, eólica- para su alimentación, minimización de la iluminación ornamental exterior así como la iluminación nocturna, equipos de control automático (detección solar),…

Prebentzio eta zuzenketa neurrien bideragarritasun ekonomikoa baloratu beharko da halako moduan non haien ondoriozko ingurumen kostuen barnekotzea bermatuko baita.

Deberá valorarse la viabilidad económica de las medidas preventivas y correctoras de forma que se garantice la internalización de los costos ambientales que derivan de las mismas.

- *IITan kontuan hartutako adierazle kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak. IITan behar diren parametro guztiak bildu dira aurreikusitako neurrien betetze mailaren jarraipenerako eta adierazleen eta gainbegiratze programaren jarraipenerako. Bai aukeratutako adierazleak bai haien arau-euskarria eguneratu egin behar dira txosten honetako goragoko ataletan deskribatutakoaren arabera.*

- *Indicadores cuantitativos y/o cualitativos considerados en el ISA. El ISA incluye una completa relación de los parámetros necesarios para el seguimiento del grado de cumplimiento de las medidas prevista y para el seguimiento de los indicadores y programa de supervisión. Tanto los indicadores elegidos como su soporte normativo deberán actualizarse en función de lo descrito en apartados*

Azkenik, IITan identifikatu egin beharko dira -eta haien ebaluaziorako gidalerroetan aurrera egin- ingurumen eraginaren ebaluazioa egin behar zaien eta ustez planaren aplikaziotik sor litezkeen proiektuak. Gutxienez ere honako hauek dira, *Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko 3/1998 Lege Orokorrean eta horren aldaketetan ezarritakoaren arabera*:

- *Gutxienez 1 hektareako azalera izango duen parke tematikoaren proiektua.*
- *Lurzoru urbanizaezineko aparkalekuaren proiektua. gutxienez 3.000 m2-ko azalera izango du, osorik edo zati batean ingurumen aldetik sentikorrak diren eremuetan.*
- Lehen mailako sareko hondakin urak bideratzeko instalazioen proiektua.

Geroko ingurumen memorian gidalerroak ezarriko dira plana garatuko duten dokumentuen ingurumen eragina ebaluatzeko, edo, hala behar denean, ebaluazioaren xede den planean aurreikusitako proiektuen ingurumen eragina ebaluatzeko.

5ª) Planaren araudiak berariaz aipatuko du garapen-planen eta proiektuen baldintza teknikoen agirietan zuzenketa neurri guztiak jaso behar direla, bai eta ingurumen iraunkortasunari buruzko txosteneko ingurumen zaintzako programa ere, erreferentziazko dokumentuko eta horren osagarri den dokumentuko zehaztapenen arabera egokituta, Planaren garapenean bideragarriak direla bermatzeko moduan.

6ª) Adierazitako babes eta zuzenketa neurri eta ingurumen kontrol guztiak, garapen-proiektuetan sartu behar direnak, behar

*precedentes de este informe.*

Por último, el ISA deberá identificar y avanzar en las directrices de su evaluación, los proyectos que deberán someterse a evaluación de impacto ambiental, y que se prevén o podrían derivarse de la aplicación del plan. Éstos son, al menos y según lo establecido en la *Ley 3/1998, General de Protección del Medio Ambiente de la CAPV* y modificaciones, los siguientes:

- *Proyecto de parque temático con una superficie igual o superior a 1 hectárea.*
- *Proyecto de aparcamiento en suelo no urbanizable con una superficie igual o superior a 3.000 m2 que se sitúen en todo o en parte en zonas ambientalmente sensibles.*
- Proyecto de instalaciones de transporte de aguas residuales de la red primaria.

La memoria ambiental ulterior establecerá las directrices para la evaluación de impacto ambiental de los documentos de desarrollo del plan o, en su caso, de la evaluación de impacto ambiental de los proyectos previstos en el plan objeto de evaluación.

5ª) La normativa del plan hará una referencia expresa a que los pliegos de condiciones técnicas de los planes y proyectos de desarrollo deben recoger todas las medidas protectoras y el programa de vigilancia ambiental del ISA, ajustados en función de las determinaciones del Documento de Referencia y su complementario, de forma que se garantice su viabilidad en el desarrollo del Plan.

6ª) Todas las medidas protectoras y correctoras y los controles ambientales indicados que deban incorporarse a los

adina xehetasunak emanaz sartu behar dira, eraginkorrak direla bermatzeko. Aurrekontuetan sar daitezkeen neurri horiek obrako unitate gisa sartuko dira, eta bakoitzak bere diru-kontua izango du proiektuetan. Aurrekontuan sartu ezin direnak baldintza teknikoen agirian sartu beharko dira.

proyectos de desarrollo han de hacerlo con el suficiente grado de detalle para que garanticen su efectividad. Aquellas medidas que sean presupuestables deberán incluirse como unidad de obra, con su correspondiente partida económica en los proyectos. Las que no puedan presupuestarse se exigirá que se incluyan en el pliego de condiciones técnicas.

**7ª) Informazio- eta kontsulta-modalitateak erreferentziazko dokumentuko 7. atalean ezarritakoak dira.**

**7ª) Las modalidades de información y consulta siguen siendo las establecidas en el apartado 7 del Documento de Referencia.**

8ª) 211/2012 Dekretua indarrean jarri ondoren, erreferentziazko dokumentuko 8. atalean ezarritakoa ez da bidezkoa.

8ª) Tras la entrada en vigor del *Decreto 211/2012*, no ha lugar lo establecido en el apartado 8 del Documento de Referencia.

9ª) Planak, gutxienez, eta gainerako beharrezko txostenak eta dokumentazioa egiteari utzi gabe, 105/2008 Dekretuaren 31. artikuluan adierazitako dokumentazioa jaso behar du (*105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa*). Dokumentazio hori eta 211/2012 Dekretuaren 13.1. artikuluan eskatutako aurkeztu beharko du planaren organo sustatzaileak (kasu honetan, Karrantza Haraneko Udala) ingurumen-organo honen aurrean, 211/2012 Dekretuan aurreikusitako ingurumen-memoria egiteko (*211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko ebaluazio estrategikoaren prozedura araupetzen duena*).

9ª) El plan deberá contener, al menos y sin perjuicio del resto de informes y documentación específica exigida, la documentación señalada en el artículo 31 del *Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo*. Esta documentación, junto con la exigida en el artículo 13.1 del *Decreto 211/2012*, deberá ser presentada por el órgano promotor del plan (en este caso el Ayuntamiento del Valle de Carranza) ante este Órgano Ambiental, a los efectos de la emisión de la memoria ambiental prevista en el *Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas*.

**B.- Erreferentziazko dokumentua eta ingurumen eraginari buruzko aurretiazko txostena eman ondoren jasotako txosten sektorialak**

**B.- Informes sectoriales recibidos con posterioridad a la emisión del Documento de Referencia y del Informe Preliminar de Impacto Ambiental**

Ez da kontsultatutako erakundeen erantzun gehiagorik jaso, sustatzaileari 2012ko otsailaren 2an, 2012ko maiatzaren 3an eta 2012ko irailaren 26an igorri zitzaizkion

No se han recibido respuestas adicionales, de los Organismos consultados, aparte de las ya remitidas al promotor con fechas de 2 de febrero de 2012, 3 de mayo de 2012 y 26 de

haietatik aparte.

**C.- *211/2012 Dekretuaren* V. eranskinaren edukiaren analisia**

Osatu beharreko alderdi batzuk aurkitu dira:

- I.1. puntua. Eskumen administratiboak:

Karrantzako Arau Subsidiarioetako aldaketa puntuala behin betiko onetsi behar duen organo substantibo edo arduraduna Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakaritza Saila da.

- III.2. puntua. Plangintzarako proposatutako helburu eta irizpide orokorren laburpena.

*Planaren ingurumen helburuak eta garapen irizpideak* atalaren barruan:

  - Lurzoruaren erabilera iraunkorra: aparkalekuaren proiektuan lehenetsi egin behar lirateke diseinu bigunen aplikazioa (geoehun iragazkorren gaineko zoladura porotsuak, iragazketa errazten dutenak...) eta drainatze sistema iraunkorrak (atxikitze-putzuak, zanga iragazleak, hezegune txikiak sortzea...). Halaber, sarbideek ahalik eta azalerarik txikiena hartu behar dute. Horretarako, jarduketaren beharrizanetarako ereduzko sekzio egokia diseinatuko da bide berrietan.

  - Energia-eraginkortasuna: instalazioen kanpoaldeko eta aparkalekuko argien diseinuan eta instalazioan ere aplikatu beharko da: argiztatu nahi diren eremuan berariazko argiztapena, sodiozko lanparak eta LED argiak erabiltzea, energia

septiembre de 2012.

**C.- Análisis del contenido del Anexo V del *Decreto 211/2012***

Se han detectado algunos aspectos a completar:

- *Punto I.1. Competencias administrativas concurrentes:*

El órgano sustantivo o responsable de la aprobación definitiva de la modificación puntual de las NN.SS. de Carranza es el Departamento de Presidencia de la Diputación Foral de Bizkaia.

- *Punto III.2. Síntesis de objetivos y criterios generales propuestos para la planificación.*

Dentro del apartado de *objetivos ambientales del Plan y criterios de desarrollo:*

  - uso sostenible del suelo: en la proyección del aparcamiento se debería priorizar la aplicación de diseños blandos (pavimentos porosos sobre getextiles permeables, que favorecen la infiltración,…) y sistemas de drenaje sostenible (balsas de retención, zanjas filtrantes, generación de pequeños humedales, …). Asimismo deberá minimizarse el área de las vías de acceso mediante la aplicación de una sección tipo en nuevos viales acorde a las necesidades de la actuación.

  - eficiencia energética: deberá aplicarse también en el diseño e instalación del alumbrado exterior de instalaciones y aparcamiento: iluminación específica de superficies deseadas, utilización de lámparas de sodio-LEDs, uso de

berriztagarriak -fotovoltaikoa, eolikoa- erabiltzea argien elikadurarako, kanpoko argiztapen apaingarria eta gaueko argiztapena ahalik gehien murriztea, kontrol automatikoko tresnak (eguzki detekzioa) jartzea, gorantz argiztatzen duen luminariarik ez jartzea...

energías renovables –fotovoltáica, eólica- para su alimentación, minimizar la iluminación ornamental exterior así como la iluminación nocturna, equipos de control automático (detección solar), evitar luminarias ascendentes, …

- III.3. puntua. Kontuan hartutako plangintza aukeren deskribapena.

- *Punto III.3. Descripción de las alternativas de planificación consideradas.*

Horren barruan aztertu egin beharko da, planaren alternatiba gisa, ea bideragarria den aldirietako aparkalekua egitea (udalerriko ingurumen balio txikiagoko lekuetan) garraio publikoko sistema batekin konbinatuta (okupazio handiko ibilgailuak) parkeraino bertaraino (garraio publikoaren eta pribatuaren arteko intermodalitatea indartzea).

Deberá incluirse el análisis, como alternativa del plan, de la viabilidad de localización de aparcamiento disuasorio (en ámbitos de menor valor ambiental del municipio) combinado con un sistema de transporte público (vehículos de alta ocupación) hasta el propio parque (potenciar intermodalidad transporte público-privado).

Atal honetan jaso diren iruzkinak garatu egin beharko dira ingurumen iraunkortasunari buruzko txostenean eta planeko dokumentazioan bertan, behar den lekuan.

Los comentarios incluidos en este apartado deberán desarrollarse en el Informe de Sostenibilidad Ambiental y en la propia documentación del plan, donde corresponda.

*Otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauaren, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzkoaren*, 39.i) eta 67.1. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako eta horren arabera, eta *Bizkaiko Foru Aldundiaren 206/2011 Foru Dekretuaren, Ingurumen Saileko egitura organikoa araupetzeari buruzkoaren*, ondorioetarako eta horren arabera, ohore dut ondoko hau zuri aurkeztea, zure oniritzia eman dezazun:

En consecuencia y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 39.letra i) y 67.1 de la *Norma Foral 3/87, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia* y el *Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 206/2011, de 13 de diciembre, por el que se regula la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente*, el que suscribe tiene el honor de someter a V.I. la siguiente:

**EBAZPEN-PROPOSAMENA**

**PROPUESTA DE RESOLUCION**

**LEHENENGOA:** “KARRANTZAKO UDAL ARAU SUBSIDIARIOETAKO ALDAKETA PUNTUALA. EKIPAMENDU SISTEMA OROKORRA –

**PRIMERO:** Aprobar el DOCUMENTO DE REFERENCIA COMPLEMENTARIO PARA LA EVALUACIÓN AMBIENTAL DE LA

«KARPIN» PARKE TEMATIKOA" IZENEKO ALDAKETAREN INGURUMEN ERAGINA EBALUATZEKO ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUA onestea, aurrean azaldu den edukiarekin, PROZEDURA *URRIAREN 16ko 211/2012 DEKRETURA EGOKITZEKO, HORREN BITARTEZ PLANEN ETA PROGRAMEN INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIO ESTRATEGIKOA EGITEKO PROZEDURA ARAUTU BAITA*.

**BIGARRENA:** Onespen hori Karrantza Haraneko Udalari jakinaraztea.

"MODIFICACIÓN PUNTUAL DE LAS NN.SS. MUNICIPALES DE KARRANTZA. SISTEMA GENERAL DE EQUIPAMIENTO – PARQUE TEMÁTICO «EL KARPIN»", A EFECTOS DE SU ADAPTACIÓN PROCEDIMENTAL AL *DECRETO 211/2012, DE 16 DE OCTUBRE, POR EL QUE SE REGULA EL PROCEDIMIENTO DE EVALUACIÓN AMBIENTAL ESTRATEGICA DE PLANES Y PROGRAMAS*, en los términos que anteceden.

**SEGUNDO:** Notificar dicha aprobación al Ayuntamiento del Valle de Carranza.

| | |
|---|---|
| INGURUMENAREN KALITATEA ZAINTZEKO GOI TEKNIKARIA / EL TECNICO SUPERIOR DE CALIDAD AMBIENTAL<br>David Cordero Iturregi | INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIORAKO ATALEKO BURUA / EL JEFE DE LA SECCION DE EVALUACION DE IMPACTO AMBIENTAL<br>Iñaki Benito Iza |
| INGURUMENAREN KALITATEA ZAINTZEKO ZERBITZUKO BURUA / EL JEFE DEL SERVICIO DE CALIDAD AMBIENTAL<br>Unai Gangoiti Ciscar | INGURUMEN ZUZENDARI NAGUSIA / LA DIRECTORA GENERAL DE MEDIO AMBIENTE<br>Maria Uribe Gerendiain |

Hala ere, zuk egokia dena ebatziko duzu.

Azaldutako proposamena dela eta, haren edukiaren aldeko ebazpena eman dugu.

***225 FORU AGINDUA, 2014ko urtarrilaren.28koa. Honen bidez onesten da "Karrantzako Udal Arau Subsidiarioetako aldaketa puntuala. Ekipamendu sistema orokorra – «Karpin» parke tematikoa" izeneko aldaketaren ingurumen***

No obstante, V.I. resolverá lo procedente.

Conforme con la propuesta que antecede se resuelve de acuerdo con su contenido.

***ORDEN FORAL número 225 de 28 de enero de 2014, por la que se resuelve aprobar el Documento de Referencia Complementario para la evaluación ambiental de la "Modificación puntual de las NN.SS. municipales de Karrantza. Sistema General***

***ebaluaziorako erreferentziazko dokumentu osagarria, prozedura urriaren 16ko 211/2012 Dekretura egokitzeko, horren bitartez planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautu baita***

***de Equipamiento – Parque Temático «El Karpin»", a efectos de su adaptación procedimental al Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas***

Bilbao, a 28 de enero de 2014.

Izp./Fdo.: Iosu Madariaga Garamendi
INGURUMENEKO FORU DIPUTATUA
EL DIPUTADO FORAL DE MEDIO AMBIENTE

Alda. Rekalde, 30.
48009 Bilbao